



**EUSKADIKO NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO LEGE-
AURREPROIEKTUA LANTZEKO PROZEDURAREN MEMORIA LABURRA.
INSTRUKZIO-FASEA, ENTZUNALDIAREN, JENDAURREKO INFORMAZIOAREN
ETA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEN PARTE-HARTZE ETA KONTSULTAREN
ONDOREN.**

Memoria hau egin da xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (EHAA, 254. zk., 2003ko abenduaren 30a) 10. artikulua 2. apartatua ezarritakoa betez.

**1.- AURREKARIAK ETA XEDAPEN OROKORRAREN BEHARRAREN
JUSTIFIKAZIOA.**

Ekainaren 30eko 16/1994 Legea (Euskadiko natura kontserbatzeari buruzkoa) onartzea lehen pauso bat izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta botere publikoek alor honetan duten kezka gero eta handiagoari erantzuteko. Lege hau bere garairako aitzindaria izan zen, eta urte askoan gidatu zuen politika hori, hainbat eremutan: baliabide naturalen antolamendua, naturagune babestuak eta fauna zein flora, besteak beste.

Baliabide naturalak kontrolik gabe ekonomikoki ustiatzeagatik, fauna zein floraren espezieak desagertzeagatik eta kontserbazio-egoera onean zeuden naturaguneak degradatzeagatik beharrezkotzat jo zen adostea gure lurraldeko baliabide naturalak, funtsezko prozesu ekologikoak eta paisaiaren edertasuna kontserbatzeko sistema bat garapen integratuaren berme gisa, etorkizuneko belaunaldien ongizatea konprometitu ez zedin.

Lege honen helburua zen natura eta bere baliabideak kontserbatzeko araubide juridiko bat ezartzea, hainbat degradazio-kausaren kontra. Araubide horrek, ordea, bateragarria izan behar zuen ekonomia eta gizartea garatzeko prozesu ordenatu batekin, eta zenbait politika sektorial integratuta taxutu behar zen; horretarako, beharrezkotzat jo zen botere publikoek era efikazean jardutea, Euskal Autonomia Erkidegoan ongi kontserbatutako natura-ingurunea izateko. Urteetan 4 aldiz aldatu zen.

Hala, 2014. urtean onartu zen Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legea onartu zenetik 24 urte pasatu ondoren, eta nahiz eta denboran bertan erreformak gauzatu, legeak aplikatzeko arazoak planteatzen ditu, batez ere, natura-ondarea babestu eta kontserbatzeko arloan dagoen ingurumen-legegintzako corpus zabalarengatik, zeina Europar Batasunetik sustatu den eta estatuko oinarritzko araudira igaro den.

Aurrez deskribatutako arau guztiak sustatu dituzten eta gaur egun indarrean jarraitzen duten printzipioak baztertu gabe, lege-aurreproiektu honen helburua da gaur egungo arazoei erantzutea, egindako lana errespetatuz beti, eta natura-ondarearen eboluzio orekatua arriskuan jar dezakeena zuzenduz.

2.- LEGE-AURREPROIEKTUAREN IZAPIDEA

2.1.- Hasteko eta aurrez onartzeko aginduak

Helburu horrekin 2018ko otsailaren 13an Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuak agindua eman zuen Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen Aurreproiektua lantzeko prozedura hasteko.

Egun horretan bertan, eta testu arauemailearen zirriborroa egin aurretik, honako gai hauen inguruko **informazioa eman zitzaien herritarrei**: a) ekimenarekin lortu nahi denarekin ados al zaude?; b) ikuspunturen bat falta dela uste al duzu? Horrela, bada, gai horien inguruko iritzia emateko gonbita egin zitzaien, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 133. artikuluan zehazten duen **aldez aurretiko kontsultaren bitartez**. Kontsulta hori 2018ko otsailaren 13an hasi zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuta plazaratu zen.

2018ko maiatzaren 29an, lege-aurreproiektuaren lehen testu egituratu bat eta aurreproiektua egiteko prozedura hasteko aginduko planteamenduekin bat egiten zuena landu ostean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuak agindu bat eman zuen Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektua aurrez onartzeko.

2.2.- Entzunaldi, jendaurreko informazio eta beste administrazio batzuei kontsulta egiteko eta kide anitzeko organoen txostenen izapideak

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektuak **aldez aurretiko entzunaldirako, jendaurreko informazio eta beste administrazio batzuen parte-hartze eta kontsultarako** beharrezko izapideak bete ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Herritarrentzako **jendaurreko informazioaren izapideaz** gain —2018ko ekainaren 6ko EHAAn argitaratu zen—, aldi berean eta ekimenak eragin diezaiekeen sektore ekonomikoen eta sozialen iritzia ezagutzeko helburuarekin, bana-banako **entzunaldi-izapide** bat ireki zitzaien arauak eragiten dien interes kolektiboak ordezkatzen dituzten **berrogeita hamar** erakunde ingururi. Horien artean zeuden elkarte ekologistak, sindikatuak, patronalak, elkargo profesionalak, merkataritza-ganberak, klusterrak, udal-partzuergoak eta abar.

Aurreikusitako araudiak zuzenean eragin diezaiekeen beste administrazio batzuek ere hartu dute parte. Horrela, administrazio publiko hauei egin zaie abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako **beste administrazio batzuek parte hartzeko eta horiei kontsulta egiteko** izapidea: Estatuko Administrazio Orokorra, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren bitartez, hiru Foru Aldundiak eta EAEko udalak, EUDEL-en bitartez.

Araubideak dagozkion eskumen-eremuetan duen eragina kontuan hartuta, ekimen arauemailea **EAEko Administrazio Orokorreko hainbat Sailen** eskura jarri zen Tramitagune, izaera orokorreko xedapenen izapidetze telematikorako erremintaren bitartez, hura aztertu eta, hala badagokio, ekarpenak egiteko.

Azpimarratu behar da aipatu izapide horiek guzti-guztiak modu elektronikoan egin direla eta, beraz, alegazioak egiteko aukera izan duten erakundeek eta administrazioek —berrogeita hamar baino gehiagok— beren ekarpenak egiteko kanal elektroniko bat izan dutela Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektroniko Nire Karpeta atalean.

Ingurumen Sailburuordetzak ingurumen-arloko parte-harze publikoko eskubideak benetan eta modu eraginkorrean bermatzeari dagokionez duen konpromisoari jarraikiz, eta ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeko printzipio berriemaileak betez, jarduketa eta izapide horien guztien berri eman da Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, Irekian eta Sailaren webgunean: www.ingurumena.ejgv.euskadi.net.

Era berean, eta herritarrek ingurumenarekin lotutako arauen lanketan parte hartzeko duten eskubidea betetzea errazteko helburuarekin —hala jasotzen baitu aipatu 27/2006 Legeak, uztailaren 18koak, 16. artikuluan—, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak **aurrez aurreko parte-hartze prozesu** bat gauzatu du, proiektu arauemailea are gehiago ezagutarazteko, zuzenean eragiten dien eragileak dinamizatzeko eta horien ikuspuntuak eta hobekuntza-proposamenak zuzenean jasotzeko. Prozesu horretan, parte hartzeko lau saio egin dira hiru lurralde historikoetan, honako hauei bideratuta: enpresei, klusterrei, enpresa-elkarteei eta nekazaritza-sindikatuari; elkargo profesionalari, teknologia-zentroari eta unibertsitateari; Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei, erakunde publikoei eta foru-aldundiei (elkarrizketa indibidualak); eta, azkenik, udalei. Horren guztiaren berri eman zen «EAEko Natura Ondarea Kontserbatzeko Lege Aurreproiektuaren parte-hartze prozesua, 2018ko uztaila» dokumentuan. Azken Laburpen Txostena. Hor parte-hartze prozesuaren bilakaera jasotzen da, modu sistematizatuan eta sintetikoan.

Herritarrei, eragileei eta eragiten zaien erakundeei irekitako parte-hartze izapide horien emaitza modura, hainbat alegazio, ohar eta hobekuntza-proposamen jaso dira honako interesdun hauen aldetik:

- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Donostiako Udala.
- Hernaniko Udala.
- Irungo Udala.
- EEE
- Euskadiko Geologoen Elkargo Ofiziala
- Espainiako Geologia Elkarte
- Baskegur
- Enba (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Bizkaiko Baso-agente Profesionalen Elkarte
- Euskal Arido
- Gipuzkoako Basozain Elkarte Profesionala
- Euskadiko Ehiza Federakuntza
- Bizkaiko Aire Kirol Federazioa
- Euskal Aire Kirol Federazioa
- Friends For Fly elkarte
- Drone By Drone
- Arkamurka Natur Elkarte
- Gaden elkarte
- Sestaoko Natur Zientzien Elkarte
- Mutriku Natur Taldea, Ingurumenaren Defentsako Plataforma
- Landarlan Ingurumen Elkarte
- Jaizkibel Geonature Ingurumen Elkarte

- Seo Birdlife
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte
- Eguzkizaleak
- Naturtzaindia Elkarte
- Enbata
- Beñat Auzmendi
- Arantza Aranburu (EHU Geologia)
- Enpresen Foroko partaideak.
- Udalen Foroko partaideak.
- Foru Aldundien Foroko partaideak.

Bestalde, 2018ko ekainaren 7an aurreproiektuaren aldeko txostena egin zuen EAEko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordeak –Naturzaintza–, eta, 2018ko azaroaren 6an, aldeko txostena egin zuen EAEko Ingurumen Batzordeak, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Aholku Batzordeak ere.

Alegazio horiek aztertu egin ziren, eta jasotako alegazio eta hobekuntza-proposamenei erantzuteko txosten bat egin zen EAEko Natura Ondarea Kontserbatzeko Lege Aurreproiektua instruitzeko fasean. 2018ko abenduaren 12koa da txosten hori, eta memoria honen II. eranskina da. Txosten horretan era arrazoituan adierazi zen alegazioak eta proposamenak aztertu ondoren baietsi ziren ala ez. Ezetsi ziren kasuetan, lege-aurreproiektuaren hasierako testua aldatu egin da.

Aipatutako txostena, aldatutako lege-aurreproiektuaren testuarekin batera, entzunaldi eta kontsultarako izapideetan parte hartu zuten interesdunei horren berri eman zitzaion, eta sailaren webgunean eskuratu ahal izan zen eta/edo gardentasun-atalean kargatu zen.

2.3.- Nahitaezko txostenak

2018ko azaroaren 6an aurreproiektuaren aldeko txostena egin zuten, eta kontrako botorik eman gabe, Euskadiko Ingurumen Batzordeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Aholku Batzordeak ere.

Instrukzio-fase honetan dagozkien nahitaezko txostenak eskatu zaizkie Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari, EMAKUNDEri, Kontratazio Publikorako Aholku Batzordeari, Lehiaren Euskal Agintaritzari eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Administrazio Publikoen Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari.

Era berean, EAEko Administrazio Nagusiko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zenbait ekarpen egin dituzte.

Horiek guztiek txostena egin dute, eta beren ohar, iradokizun eta hobekuntza-proposamenak behar bezala aztertu dira. Onartu diren kasuetan, lege-aurreproiektuan dagozkien aldaketak egin dira. Azterketa horiek memoria honen I. eranskinean daude.

Datu nabarmen gisa, adierazi behar da parte hartzeko prozesuaren eta jasotako alegazio eta oharrek aztertu ondoren, artikulatuaren eta horren xedapenen % 90 inguru aldatu dela, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Alegaziorik jaso ez duten artikulua eta xedapen bakarrak hauek izan dira: 41., 91., 103., 104., 105. artikulua, 2., 3., 6. eta 8. xedapen gehigarriak, 3. eta 6. xedapen iragankorrak, eta xedapen indargabetzaileak eta azken xedapenak.

2 artikulua gehitu dira:

Sarbidea eta pasatzea.

Botere publikoen eskubideak eta betebeharrak

42., 48., 62. artikulua ezabatu dira, baita 2. xedapen gehigarria eta 3. 5. eta 6. xedapen iragankorrak. Eta 24. eta 25. artikulua bat bakarrean bildu dira.

2.4. Hurrengo izapideak.

Lege-aurreproiektuaren izapidearen hurrengo helburu gisa adierazi behar da eskatzeko daudela txosten eta irizpen hauek:

- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.
- Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena.
- Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren txostena.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

Prozedura aurrera doan heinean informazio juridiko nabarmena sortzen bada, hori era aktiboan argitaratuko da LEGEGUNEA gardentasun-atarian abenduaren 9ko 19/2013 Legean, Gardentasuna, Jendurreko Informaziorako Sarbide eta Gobernu Onari buruzkoan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinaduran ageri den egunean

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria
Director de Patrimonio Natural y Cambio Climático

AITOR ZULUETA TELLERIA
(Elektronikoki sinatuta)

I. ERANSKINA

ERANTZUNA NAHITAEZKO TXOSTENETAKO OHAR ETA IRADOKIZUNEI.

1.- INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZU JURIDIKOAREN TXOSTEN JURIDIKOAK.

Jasotako aurretzako onespeneren ondoren, Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak, kudeaketaren arduradunak, lege-aurreproiektua igorri egin zion Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan aipatzen den sailari txosten juridikoa egin zezala eskatzeko, bere oinarri juridikoa aztertzeko, bertako edukia legera eta zuzenbidera egokitzeko eta teknika arauemailearen gidalerroak zaintzeko helburuarekin. Txosten hori 2018ko abenduaren 5ean igorri zen eta bertan hainbat ohar egin ziren. Horietatik hauek nabarmentzen dira duten garrantziarengatik:

- a) Estatuak eskumen eskusiboa duen eremuetan eskumenak inbadi daitezkeela, gai honetako estatuko oinarrizko legeria errespetatuz.

Kasu horretan, Naturagune Babestuetan (NB) erauzte-jarduerei buruzko artikulua aldatzea erabaki da. Bertan behera utzi da debeku orokorra –izan ere, estatuaren errekurso bat ekarriko zukeen–, eta, Konstituzio Auzitegiak ekainaren 7an emandako 65/2018 epaiarekin bat, naturagune bakoitza planifikatu eta/edo kudeatzeko tresnek ezartzen duten horretara igorri da. Tresna horiek identifikatuko dute jarduera gauzatu ezin den gunea, eta era egokian arrazoituko dute egon daitekeen bateraezintasuna.

- b) Lurralde Historikoen eta erakunde komunaren arteko eskumenak argitu dira, eta iradoki da, hala beharko balitz, Lurralde Historikoen Legea aldatzea.

Txosten juridikoan adierazten denaren arabera, ulertzen dugu, hain zuzen ere, aldatu egiten dela LHLk 7.3.c) artikuluan ezarritakoa. Halere, aldaketa bat eginda ere, ez du inbaditzen Lurralde Historikoen eskumena, baizik eta zabaldu egiten du; beraz, zaila da inbaditu egiten dela argudiatzea. Bestela esanda, LHLk Lurralde Historikoen betearazteko eskumenari buruz dituen aurreikuspenek ez diote eragozpenik jartzen autonomia-erkidegoko legegilearen gaitasunari lurralde horiei eskumen arauemailea onartzeko.

Aurrekoa kontuan hartuta, ezin da ahaztu LHLren 12. artikulua honela dioela: alegia, autonomia-erkidegoak, legearen bidez, «transferi edo eskuordetu» diezazkieke Lurralde Historikoetako foru-organoei LHLk horiei esleitu gabeko eskumenak. Eskuordetze hori baliogabetu daitekeela ere jasotzen du.

Halere, Legeak 10.2 artikuluan hau aurreikusten du: «2. Lurralde Historikoetako foru-organoei dagozkie azaroaren 25eko 27/1983 Legean (autonomia-erkidegoko eta bertako Lurralde Historikoetako foru-organoei dagozkie) jasotako eskumenak, baita lege honek eta natura-ondarearen alorreko gainerako araudi autonomikoak esleitutakoak ere». Gainera, xedapen iragankor batek hau dio: «Lege honetan Foru Aldundiei esleitutako autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorren funtzio eskusiboak legea indarrean dagoen aldiaren mantenduko dira».

Bi ñabardura nagusi horiez gain, txosten juridikoak zenbait ohar ezartzen ditu eta, ondorioz, lege-aurreproiektuaren testuan aldaketa hauek egin dira:

- Kalitate arauemaile tekniko/formalari dagokionez, testuko aditz-forma aldatu da, eta txosten horretan aholkatutakoa erabili. Beraz, testua geroaldian eta aginteran idatzi da.
- Definizioei buruzko 4. artikulua nabarmen murriztu da; izan ere, estatuko legean definitzen ez direnak eta lege honen adiera berriak direnak utzi dira.
- 6. artikuluko 3. puntua kendu da; bertan hau ezartzen zen: «Publikoa da euskal administrazio publikoetatik lege honetako eta legea garatzen duten gainerako xedapenak bete daitezela eskatzeko ekintza».
- 14. artikulutik (orain 15.a) kendu egin da Euskadiko Natura Ezagutzeko Sarea kalifikatzeko elkartearen figura juridikoa.
- 15. artikuluan (orain 16.a) aldatu egin da egin beharreko txostenak jasotzeko periodikotasuna, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legean (NOetaBL) ezarrikoetara egokitzeko.
- 19. artikuluko (orain 20) 2. puntutik kendu egin da hau: «izena kontuan izan gabe».

Halere, adierazi behar da 102/1995 Konstituzio Auzitegiaren Epaian (KAE) oinarritzen den aholkularitza juridikoaren txostenak (AJT) adierazten duela plan guztiek arau juridiko izaera dutela. Baieztapen hori, halere, zehaztu egin behar da. Hain zuzen, plan guztiek ez dute profil arauemaile hori, eta daukatenek, arauak sartzeaz gain, aipatzen duten errealitatearen egoera ere sar dezakete (adibidez, naturagune bateko baliabide naturalak antolatzeke plana, ikuskapen-plan bat, unibertsitate-titulu bat lortzeko ikasketa-plan bat edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (APEL) 133. artikuluan aurreikusitako plan arauemailea). Horren arrazoia da planak askotarikoak direla, eta haien edukia ere kontuan hartzekoa da. Horrela, adibidez, espetxeak amortizatu eta sortzeko plan batek, jurisprudentziaren arabera, hauek dauzka: «jarduketa estrategikoaren orientazio-jarraibide batzuk barne-dokumentu estrategiko batean» (2000ko martxoaren 6ko AGE, 48/1993 erre.).

- 24. eta 25. artikulua batean batu dira, eta AJTko zalantzak argitzeko idazketa berri bat du.
- 26-28. artikuluen idazketa aldatu da, AJTan adierazten den nahastea argitzeko.
- «Jabetza-erregistroan informazio geografikoa sartzeari» buruzko 40. artikulua kendu egin da».
- 65. artikulua aldatu egin da, eta honela idatzi da: «Autonomia Erkidegoan natura-ondarearen arloan eskumena duen sailak proposatu ahal izango du biosferaren erreserba deklara daitezela...».
- AJTaren oharrei jarraituz, 69. artikulua (orain 67.a) aldatu egin, eta hau adierazten da: «Espezie exotikoen aurka egitea, hala era prebentiboan nola kontrolatzeko eta errotik kentzeko neurriak hartuz».

- 70. artikuluan (orain 68.a), Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremua sartu da. Eta, era berean, sartzeko prozedura kendu da, etorkizuneko araugarapen baten esku utziz.
- 73. artikulua (orain 71.a) idazketa hobetu egin da. Definizioen artikulua kenduta, ezin da horrekin nahasterik izan.

Ukatu gabe AJTko oharra, hau adieraztea beharrezkotzat jotzen da:

- a) Aurreproiektuan «galzorian» dauden espezie katalogatuetarako arau espezifikorik ez dagoenez, adierazi behar da katalogoak «gutxienez» barnean hartzen dituela espezieak babestu eta hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduketak.
 - b) Bestalde, galzorian dauden espezieek lehentasuna dute kudeaketa-planak onartzean (70.1. art.).
 - c) Nahiz eta aurreproiektuak aipatzen dituen «lehentasunezko arreta» behar duten espezieak, begi-bistakoa da kategoria horretan egon daitezkeen arreta hori merezi dutela.
 - d) NOBLren zehapen-araubideak espezie horiekin zerikusia duten bi zehapen jasotzen ditu [NOBL 76.1. art., b) eta d)], eta aurreproiektuak zehapen horietara igortzen du (95.1. art.).
- 74. artikulutik kendu egin da espezie exotiko inbaditzaileen definizioa.
 - 75. artikulua (orain 73.a) idazketa hobetu egin da, eta, ekintzak baloratzeko, intentzionalitatez izan den ala ez jaso behar dela adierazi da.

Gai horri dagokionez, kontuan izan behar da EBJAk C-60/05, *WWF Italia v. Regione Lombardia* (ECLI:EU:C:2006:378) auzian deklaratu duela kontrol-mekanismo batek, zeinaren bidez ezesten den salbuespenezko harrapaketa bat baimentzen duen erabaki bat (2011/147 Zuzentarauaren 9. artikulua urratuz), edo ezesten den harrapaketa bat baimentzen duen erabaki baten (soilik egin daitekeena harrapaketa hori egiteko aurreikusitako aldia pasatu ostean) mende dauden baldintzen ez-betetze bat egiaztatzea, efikazia kentzen diola zuzentaruaren ezarritako babes-sistemari. EBJAren arabera, garaiz eta era erabakigarrian esku hartzeko gaitasunak, agintari eskudunen erabakiek zuzentaruaren babes-aginduen aurkako emaitzara bideratzen duten edo bideratuko dutela mehatxatzen duten egoeretan, 9. artikuluan ezarritakoaren bermea osatzen du. Ondorioz, erabaki horien aurkako errekurso arruntak salbuespenaren indarraldia pasatu aurretik ebatzi behar dira. Epai honen doktrina loteslea da dagokien administrazioentzat.

Aurreko doktrina aplikatu dakiok, *mutatis mutandis*, aurreproiektuan aurreikusitako salbuespenen araubideari; beraz, printzipioz, zuzena da bere arauaketa.

- Kendu egin da 79.4. artikuluan Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen aipamena. Eta 77.6. artikuluan egindako 75. artikulua aipamena jasotzen da.

- 80. artikulua (orain 78.a) idazketa aldatu da, zeren ez dira sortuko basafauna berreskuratzeko zentroak, puntu hori aurreikusi baita Euskal Herriko Natura Babesteko Legean (EHNBL).

AJTak adierazten du berriaz jaso beharko litzatekeela germoplasma-bankuen araubidea. Horrela, Eusko Jaurlaritzari Estatutuan eta Gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean aitortutako erregelamendu-eskumenak omisio hori osatu dezake.

- 84. artikulua (orain 82.a) egokitu egin da AJTak iradokitakora, eta proposatzen ziren EHNBLren bi paragrafoak sartu dira.
- 85.3 artikulua (orain 83.a) zehaztapen bat sartu da: «merkataritza- edo autokontsumo-helburuetarako ez denean».
- 86.1. artikulua (orain 84.1.), kendu egin da «naturagune babestuetatik» eta, horrela, babestu gabeko gunek sartu dira, AJTan iradokitzen den bezala.
- «Eragin sozioekonomikoko eremuei» buruzko 87. artikulua kendu egin da.
- 90. artikulua (orain 89.a), lurraldea zaintzeari buruzkoan, kendu egin da 4 urtetik gorako akordioak edo hitzarmenak sinatzeko aukera.
- Hirugarren xedapen gehigarria kendu da, zeren ez dago kasuistikarik xedapen hau aplikatzeko.

Bestalde, aholkularitza juridikoaren txostenak zenbait ñabardura egin ditu, baina ez dira kontuan hartu, arrazoi hauengatik:

- Lehenengo artikulua, aurreproiektuak AJTak lurraldeko itsasoari buruz egiten dituen ñabardurak ez zerrendatzea ez da garrantzitsua, zeren NOBLn oinarritzko eran zehazten baita (6. art.).
- AJTan adierazi da administrazio-lankidetzaren mekanismoak ez direla behar, ez baitiote ezer eransten araubide orokorrari. Halere, natura-ondarea babestea bezalako alor baten garrantziak, elementu ugari baititu eta administrazio ugari baitaude tartean, izan alor honetan dituzten eskumenengatik izan beren jarduketan eraginarengatik, justifikatzen du testuan berriaz agertzea administrazioen arteko lankidetzarako xedapenak.
- AJTak agerian jarri du, batetik, Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektua eta, bestetik, Natura Ondarea Kontserbatzeko Lege Aurreproiektua koordinatu egin behar direla, zeren biak aurreikusten dute Ingurumenaren Aholku Batzordearen berregituratze berria. Eta, zalantzarik gabe, horrela izan behar du. Baina seguru jakin gabe bi legeak aurrera aterako diren, edo bat bakarrik –eta, kasu honetan, jakin gabe bietako zein–, bi aurreproiektuetan artikulatua mantentzea erabaki da, aurrerago gertatzen den egoerara, baita Legebiltzarrean ere, artikulua hau egokitu behar bada ere.
- 13. artikuluari dagokionez (orain 14.a), arau honi buruz Aholkularitza Juridikoaren Txostenaren alegazioek bi alderdi planteatzen dituzte. Alde batetik, ez dela osatu Ingurumen Administrazioaren eta Natura Ondarearen lege-proiektuaren informazio-sistemaren arteko integrazioa. Halere, kontuan izanda aurreproiektuak bere xedea oso modu orokorrean azaltzen duela eta, bereziki, 14. artikuluko 3. apartatua honako ekintza hauen arau eta irizpideen

garapenerako erregelamenduari lotzen zaiola: sistemaren informazioa normalizatzea, eta sistemaren erabilera partekatua eta berrerabilera bermatzea, baita sistemaren edukia, egitura eta eguneratze-araubide eta administrazioen artean informazioa transmititzeko betekizun eta baldintzak. Hala, alegatutako integrazioerik eza konpondu daiteke.

Aurreproiektuak integrazioerik ez jasotzeko Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa garatzeko apirilaren 20ko 556/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako tresna bidez, kontsiderazio batzuk adierazi behar dira:

- a) Alde batetik, AJTak aitortzen duen bezala, 556/2011 Errege Dekretua oinarrizkoa da. Beraz, Estatuari dagokio integrazio-mekanismoak ezartzea.
 - b) Bigarrenik, aipatutako Errege Dekretuak onartzen du autonomia-erkidegoek beren informazio-sistemak izan ditzaketela. Hori dela eta, Errege Dekretuaren 7.2.a) artikulua adierazten du Ingurumen, Landa Eremu eta Itsas Inguruneako Ministerioa (gaur egun Trantsizio Ekologikorako Ministerioa) koordinatu egingo dela Estatuko Administrazio Orokorrekin eta alor honetan eskumena duten erkidegoetako administrazioekin «horrela, dagozkion eskumen-eremuetan dauden tresnak era egokian integratu ahal izango dira inbentarioan».
 - c) Natura Ingurunearen Datu Espazialen Azpiegiturari dagokionez (IDENAT), eta alta, baja eta aldaketen balizko arazoak bertan berehalako isla izateari dagokionez, ez da ikusten Errege Dekretuan ezarritakoa ez aipatzea oztopo bat denik. Errege Dekretuak berak aurreikusten du datuen eredu bat sortzea. Bigarrenik, IDENATek eduki «geografikoa» du, baina horrek ez dirudi zailtasun gehigarriak planteatzen dionik autonomia-erkidegoaren administrazioari, aurreproiektuak jasotzen duenaren arabera.
- 49. artikuluari dagokionez (orain 48.a), adierazi behar da bi figurak nahitaezkoak direla NOBLren arabera (31.3. eta 36.1. artikulua). Izan ere, NOBLk ezartzen duen bezala, aurreko legeriaren aztarnari jarraituta, Natura Baliabideak Antolatzeke Plana (NBAP), oro har, parke eta erreserba naturalak izendatu aurrekoa izango da.

Bigarrenik, ikus daiteke Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia, aurreko bi tresnak ez bezala, beste jarduketa-plano batean dagoela, zeren bere helburua da «EAEko administrazio publikoen politikak koordinatzea», aurreproiektuaren 17.2.c) artikulua edukiak adierazten duen bezala («politika publikoen gidalerro orokor orientatzaileak»). Egia da Estrategiaren edukian (17.1. art.) hau erantsi dela: «estatuko eta Europar Batasuneko plangintza estrategikoaren eduki lotesleak errespetatu eta txertatuz». Halere, han adierazten den bezala, beste erabakigune batzuetatik datozen alderdiak dira (ez dira, beraz, Estrategiakoak) eta, nolana ere, haiek ere «estrategiakoak» izango lirakeke, hau da, orientazio orokorrekoak

- Hala Lurralde Antolamenduaren Sailburuordetzak nola Ingurumen Sailburuordetzak ez dute ikusten alderatu behar denik, AJTan adierazi den bezala, ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuko araubidearekin, hau da, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko araubidearekin. Izan ere, Paisaiaren Europako Hitzarmenak (Florentzian egin

zen 2000ko urriaren 20an) 4. artikuluan hau ezartzen du: «*alderdi bakoitzak hitzarmen hau aplikatuko du, dagokion eskumen-banaketaren arabera, bere konstituzio-printzipioen eta administrazio-antolamenduaren arabera...*».

Hori dela eta, AJTak jasotzen duen bezala, paisaia, lurralde-antolamenduaren ikuspuntutik zein ingurumen edo natura-ondarearen kontserbazioaren ikuspuntutik, ezin hobeki babestu daiteke; baina botere publikoen jarduketa alor horretan koordinatu egin beharko da, dauden tresnek ezar ditzaketen araubideek nahasmenik eta ziurgabetasun uridikorik sor ez dezaten, ez pertsonengan ez operadore juridikoengan.

- AJTak haxe dio 59. artikuluari buruz (orain 58.a), alegia, EA Eri dagokion betebeharra ez dela betetzen tokia deklaratzeko dekretu-onarpenarekin, bertan ez badira sartzeko tokia kudeatzeko jarduketak, hau da, aurreproiektuaren arabera dagokion Foru Aldundiak onartu behar dituen jarduketak. Aurreko baieztapenak iruzkin batzuk eskatzen ditu. Aurreproiektuak aurreikusten du koadro arauemaile bat onartzea 92/43 Zuzentarauaren 6.1. artikulua adierazten duenarekin bat; artikulua hori aipatzen baitu AJTak. Zehazki, aurreproiektuaren arabera, dekretuak, beste zehaztapenen artean, izan behar ditu «tokia kontserbatzeko arauak eta gidalerroak, Eusko Jaurlaritzak landuak». Beraz, foru-organoak ondoren gauzatuko dituen kudeaketa-jarduerak xedapen lotesle batzuen mende daude. 60. artikuluan 2. apartatuan aipatzen diren kudeaketa-jarduerak, zehazki, tokietan egiten direnak dira, baina, nolana ere, ezin da ondorioztatu horiek ez dituztenik habitatan Zuzentarauaren 6.1. artikulua zerrendatzen dituen tresnak. Kontuan izan behar da, gainera, autonomia-erkidegoak Natura 2000 sarean sartu dituen guneei jada badituztela, besteak beste, Zuzentarauaren 6.1. artikuluan ezarritakoa betetzeko dagozkien arauak.
- AJTaren 70. artikuluari dagokionez (orain 68.a), egia da omisio bat dagoela, administrazio-prozedurari buruzkoa. Gainerako alderdietan egiazta daiteke kointzidentzia bat dagoela, katalogoko kategorietan barne. Egiazki, aurreproiektuak berariaz ez aipatzeak item hori 61ean agertu behar dutenen artean ez du hori aipatzea saihesten; izan ere, «galzorian» dauden eta «kalteberak» diren espezieez osatzen da; beraz, zirkunstantzia hori zehaztu egin beharko da.
- 72. artikuluari dagokionez (orain 70.a), AJTak 72. artikuluko 2. apartatuari buruz haxe adierazten du, alegia, kontuan izaten bada kudeaketa-planak onartzea espeziearen katalogazioari lotuta dagoela, ez dagoela argi aipamena zehazki katalogazio horren lehentasunaren ingurukoa den eta ez horrenbeste planak onartzearen ingurukoa. Halere, arau horren irakurketak ez du AJTak adierazitako zalantza sortzen. 72.2. artikuluan aipatzen den lehentasunak zerikusia du kudeaketa-planak onartzearekin, zeinaren idazketa, izapidetzea eta onartzea denboran luza daitekeen (luzatu ohi da). Hori dela eta, aurreproiektuak Eusko Jaurlaritzan natura-ondarearen arloan eskumena duen saila behartzen du plan horiei buruzko lehentasunak ezartzera, aipatzen dituen bi irizpidetan oinarrituta, hau da, mehatxu-maila edo banaketa-eremua.
- 74. artikuluari dagokionez (orain 72. artikulua), AJTak kritikatu egiten du ez dela zehazten Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskal Katalogoaren izaera «administratiboa». Halere, ñabardura hori ez da garrantzitsutzat jotzen, onartze-maila handia baitu, hau da, Eusko Jaurlaritzan natura-ondarearen arloan eskumena duen sailaren agindu bat da.

Bestetik, AJTak «kezkagarriak» izan daitezkeen espezieen katalogazio bat aipatzen du eta, bere ustez, ezin da jakin espezie exotiko inbaditzaile moduan katalogatutakoen barruko katalogazio gehigarri bat ote den edo, artikulua horren beraren 1. apartatuaren aldean, suposizio ezberdin bat ote den, eta katalogoan espezie bat sartzea dakarren (espezie exotiko inbaditzailea izan gabe).

Aurrekoaren inguruan adierazi behar da aurreproiektuak espezie exotiko inbaditzaileak kategoriatzat jotzen dituela. Aurrekoa, halere, ez da eragozpena «kezkagarri» horiek kontuan eduki ahal izateko, aurrekoekiko bi irizpide bereizlerengatik, hau da, horien hedapena zabala izatea ingurumenean eta premiazko neurriak behar izatea horiek errotik kentzeko. Puntu honetan komeni da adieraztea litekeena dela aurreproiektuak kontuan hartu izana Europar Batasunaren araudia (1143/2014 Erregelamendua, espezie exotiko inbaditzaileak sartu eta hedatzea prebenitu eta kudeatzeari buruzkoa). Horrek eskatzen du 2018ko otsailerako zaintza-sistema bat izan behar dela, eta kudeaketa- «neurri efikazak» martxan jarri behar direla EBrako espezie exotiko inbaditzaile «kezkagarriak» direnei buruz, baldin eta estatu kideek egiaztatu badute horiek «asko hedatu direla» beren lurraldean. Bestalde, erregelamenduak (12. art.) gaitu egiten du estatu kide bakoitza estatuarentzat espezie exotiko inbaditzaile kezkagarriak direnen zerrenda nazional bat ezartzeko.

Bestalde, AJTak kritikatu du 74.6. artikulua (orain 76.5) ez duela zehazten zer administraziori dagokion deuseztatzeko plan bat onartzea, ezta onartzeko prozeduraren gutxieneko parametro batzuk onartzea ere. Nahiz eta egia den aurreproiektuak ez duela berariaz aipatzen plan hori onartzeko administrazio eskudunak, kontuan izan behar da bere xedea autonomia-erkidegoaren eskumenean kokatzen dela. 74. artikulua arauketari begiratuta, Eusko Jaurlaritzaren sail eskudunari soilik eskatzen zaio, katalogoa onartzeari dagokionez, kautelazko debekuak edo behin-behinekoak hartzea edo salbuespenak ematea. 7. apartatuak paralelismo bat ezartzen du, halaber, deuseztatzeko planek edo kautelazko eran onartzen diren planek eskatzen dituzten neurrien artean, horrek esan nahi du eskumena Eusko Jaurlaritzaren sailarena dela. Azkenik, 10. artikulua arabera (1. eta 2. apartatuak), eskumen hori sail honetan jasoko litzateke.

74. artikuluko (orain 76.a) 7. puntuan jasotzen den kalte-ordainik ez emateko printzipioari dagokionez, AJK artikulua honi buruzko ñabardura bat egiten du, eta adierazten du 7. apartatuak kalte-ordainik ez emateko printzipioa ezartzen duela deuseztatzeko planek eskatutako neurriengatik. AJK uste du printzipio hori ezberdina dela 89. artikuluan izaera orokorarekin kontrako printzipioa ezartzearen aldean; ondorioz, formulazio hori mantenduz gero, berariazko justifikazio bat beharko litzateke espedientean.

Gai hori aztertzeko, kontuan hartu behar da 89. artikulua jabetza nahitaez kentzeko legediaren printzipio orokor bat ezartzen duela, horren arabera: «Jabetza pribatu edo legezko ondare-eskubide eta -interesik kentzen bada, kentzeko modua zein izan den kontuan izan gabe, betiere, haien erabilera tradizional eta finkatuekin bateragarria izanez gero, titularrek eskubidea izango dute dagokien kalte-ordaina jasotzeko».

Bestalde, 74.7 artikulua ezartzen du erauzte-planek edo, kasuaren arabera, kautelazko neurri gisa hartutako planek exijitzen dituzten neurriek ez dakartela kalte-ordain bat jasotzeko eskubiderik, betebeharrak horietatik eratorritako gastuei aurre egiteko laguntzak onar badaitezke ere.

Aurrekoaren arabera, jabetza-eskubidearen banakako gabetzea eta jabetza-eskubidea mugatu edo arautzeko nozioak alderatu behar dira.

- a) Desjabetzarekin, administrazioaren asmoa da, zuzenean, jabetza kentzea; horrela, arazoizko era guztietan ondare bat ustiatzeko aukera desagertzen da. Mugatu edo arautzeko kasuan, ez dago partikularrari kalte-ordaina emateko betebeharririk; izan ere, printzipioz, ez da murrizten jabetza-eskubidearen funtsezko edukia, baizik eta eskubide hori baliatzeko oztopoak ezartzen dira. Bestela esanda, mugatze gisa uler daiteke jabetzaren gaitasunak eta betebeharrak ezartzea, era orokor eta abstraktuan.
- b) Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baieztatu du, nahiz eta lursail batzuen erabileraren inguruko neurri batzuek jabetza-eskubidearen muinari eragin diezaieketen, lursail horiek ustiatzeko gaitasunak ezin duela desagertu (*Matos eta Silva v. Portugal, 15777/89 salaketa, 1995eko irailaren 16ko GEEAE*). Lursail bat basotzat edo basogintzarako jotzeak ez du esan nahi jabetza-eskubidea kentzen denik, zeren muga batzuen mendeko gune pribatuak mantentzen baitira (*Lazaridi v. Grezia auzia, 31282/04 salaketa, 2006ko uztailaren 13ko GEEAE*). Antzeko eran, merkataritzako arrantza-eskubideak mugatzea horiek lortzeko baldintzak eta horiek izateagatik ezartzen diren zehapenak direla eta, jabetza kontrolatzea da baina ez da kentzea (*Gudjonson v. Islandia, 40169/05 salaketa, 2008ko abenduaren 2ko GEEAE*). Oro har, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) baieztatu du baldintza ekonomikoak eta, areago, zenbait oinarritzko eskubide –esaterako, jabetza– ez zaizkiela gailendu behar ingurumena babestearekin lotutako kontsiderazioei, bereziki Estatuak horri buruzko legeria badu (*Koktepe v. Bulgaria, 35785/03 salaketa, 2010eko urtarrilaren 13ko GEEAE*).
- c) Bestalde, konstituzio-jurisprudentziak ulertzen du eskubide baten edukia mugatu edo arautzeko legezko neurriak, nahiz eta eskubidearen erreforma mugatu bat diren edo gaitasunetako baten bat mugatzen duten, ez dituela Espainiako Konstituzioak (EK) debekatzen, eta ez dakartela kalte-ordainik (149/1991 KAE). Laburbilduz, mugaketa (arauketa) eta desjabetzearen (kalte-ordaina dakarren gabetzea) arteko muga, EKren 33.3 artikulua aplikatzen aplikazio-ondoretarako, funtsezko edukian, hauxe da: jada eraginkor ez diren jabetza-eskubidearen edo erabilgarritasun-gaitasunetatik haragoko barrerak ez gainditzea.

Aurreproiektuaren abiapuntua da espezie inbaditzaileak deuseztatzeko neurriek, jabetza pribatuko lursailetan, kalte-ordainik ez dakarren karga orokor bati erantzuten dietela (eragiten zaien lursailen jabe guztienta), zeren ez da murrizten jabetza-eskubidea, eta xedea ez da, agindu bidez, jabetza kentzea. Haien natura-ondarea babesteko neurri berezien mende daude; horrek justifikatzen du aurreproiektuaren jarrera eta, kasua balitz, babes-neurrien mende egotea arriskuan jar dezaketen espezieen kontra. Halere, kontuan izan behar da 74.7. artikulua aurreikuspenak ez dutela guztiz ixten 89. artikulua jasotzen duen urratserako bidea; beraz, *ad casum* ikuspuntu bat izan behar da zehazteko kalte-ordaina emateko aukera dagoen, gauzatu beharreko deuseztatze-neurriek egiazki era nabarmenean murriztu baitezakete jabetza-eskubidea jabetza-eskubidearen gain dituen ondorio ugariengatik.

- 80. artikuluari dagokionez (orain 78.a), AJTak adierazten du berariaz osatu beharko litzatekeela germoplasma-bankuen araubidea. Horrela, Estatutuan eta Gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean Eusko Jaurlaritzari esleitutako eskumenak omisio hori osatu dezake.

Bestalde, AJTak berretsi egiten du foru-organoen eskumeneko antolamendu-alderdietan proposatutako araubidearen eraginaren inguruko kritika, alde batera utziz legegileak antolamendu-baldintzak ezar ditzakeela ezartzen dituen neurrien eraginkortasuna bermatzeko helburuarekin, Lurralde Historikoen eskumenari eragin gabe. Aurreproiektuaren 80. artikulua kasuan, ez da ikusten zer baldintzek inbadi dezaketen eskumen hori.

AJTak adierazten du 80. artikulua 4. apartatuak zenbait zehaztapen jasotzen dituela hitzarmenen onespenera dagokionez, zeinak, inolako araugintza-baliorik ez dutela alde batera utzita, injerentzia bat izango bailirateke foru-organoen eskumen-eremuetan, nahitaez onetsi beharko liratekeela interpretatuko balitz. AJTaren hitzetatik ondoriozta daiteke, hitzarmen horiek ez direla lotesleak (aurreproiektuak adierazten du foru-organoei «*lankidetzahitzarmenak izan ditzaketela*»), eta, beste kasu batzuetan bezala, ez da asmatu horrelako aurreikuspen batek Lurralde Historikoen edo foru-organoen antolamendu-gaitasunari zertan eragin diezaiokeen zehazten. Izan ere, alderdi hori errepikatzen denez AJTan, berriz adierazi behar da legegileak gaitasuna duela antolamendu-gaiak ezartzeko araudi sektorialean, hori beharrezkoa bada araudi horren xedeak bermatzeko. Bestela, autonomia-erkidegoetako legeek, nolabait Lurralde Historikoei eragingo baliete, beren eskumenen eremu sektorialean ezingo lukete baldintzarik aipatu, eta horri, argi eta garbi, ezin zaio eutsi, LHLk, legeria sektorialak eta konstituzio-doktrinak, oro har, antolatzen duten eskumen-banaketa kontuan hartuta.

- 93. artikuluan (orain 91.a) arautzen den Euskal Funts Publikoari dagokionez, AJTak nabarmendu egiten du zehapenak funtsean sartzeko arazoa, zehazpen horiek foru-organoei ezartzeko aukera baitago. AJTak uste du zigor-kobranta foru-aldundiek erabat kudeatzen badute eta funts horiek autonomia-erkidegoaren administrazio orokorrera eskualdatzea aukeratuko balitz, gure ustez, horrek «ondorioak izango lituzke» ekarpenen kalkulua egitean martxoaren 23 2/2007 Legearen arabera (Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzkoa).
- 94. artikuluan (orain 92.a) AJTak adierazten duen arazoa, hau da, ikuskapen-funtzioez foru-organoei zer langile ardura daitekeen, era sinplean ebatz daiteke, adieraziz gero haiek zehazten duten langileak izango direla.
- Zehapenen tipifikazioa aldatu egin da, eta artikulua honetan islatu ez diren eta artikulatu honetan aurreikusi diren mota batzuk sartu dira.
- AJTak zehapenen zenbatakoei buruz ikusitako akatsa zuzendu da.
- Zehapenen publikotasunari buruz aurreproiektuan jasotako kasuan, 103. artikulua (orain 101.a), arduradunen datu pertsonalak soilik zabalduko dira arau-hauste oso astunen kasuan eta zehapena irmoa denean administrazio-bidean. Neurri honekin, aurreproiektuaren xedea da ingurumen-babes handiagoa ematea, agerian jarritz, publikotasun-bidetik, zuzenbidearen aurkako portaera larrienak. Hori proportzionala da datu pertsonalak babesteko

oinarrizko eskubideen balizko arau-haustearekin, zeren, adierazi den bezala, halakorik ez da gertatzen, aurreproiektuaren araudia 201 6/679 (EB) Erregelamenduaren mende baitago.

- Lehenengo xedapen gehigarriari buruzko irizpidearekin ez gaude ados. Ez da ikusten zein den NBAP baten bidez gauzatzeak, deklarazio singular baten ordeze, ekar dezakeen hutsunea.

2.- EMAKUNDEREN TXOSTENA.

Aurreproiektua lantzeko nahitaezko izapide gisa, EMAKUNDERi txostena eskatu zitzaion 2018ko irailaren 12an, emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoa behar bezala aplikatzen dela ziurtatzeko.

Eskaera horri erantzunez, txostena 2018ko irailaren 20an jaso zen.

Inpaktu-txostenaren edukia dela eta, atal eta galde-sorta guztiak betetzeko egin den ahaleginaren balorazioa positiboa izan da, bai eta informazio eta datu eguneratuak eta sexuaren arabera bereizitakoak bilatzeko eginiko ahaleginarena ere.

Halaber, berdin baloratu dute txostenean kontsumo-ohiturei buruzko datuak, herritarrek ingurumenaren gainean duten pertzepzioari buruzkoak eta emakumeek eta gizonen sektorean duten presentziari buruzkoak ematea. Horrela, ingurumenaren aldeko neurriak hartzeari buruz gizonetakoak eta emakumetakoak dituzten jarreraren inguruan, berriz, datuek frogatzen dute emakumeak prestago daudela garapen jasangarriaren eragin handia duten zenbait baliabideren kontsumo eta kudeaketa arduratsuagoaren aldeko murrizketak eta obligazioak ezartzeko.

Hobekuntza posibleen artean, uste da interesgarria izan daitekeela sexuaren arabera bereiztea, besteak beste, natura-ondarearen kontserbazioan arauak urratzen dituztenen datuak, bai eta lege hau betearazten dela bermatzeko ikuskatzaile arduradunei buruzko datuak ere.

Arauen edukia dela eta, gomendio hauek egin dira:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 23. artikulua aurreikusten duenarekin bat etorriz (otsailaren 18ko 4/2005 Legea), gogorarazten da Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren eraketan eta testuan arautzen diren kide anitzeko organoetan eta erakundeen eta pertsonen elkarteetan –Aholkularitzarako eta Bideratzeko Kide Anitzeko Organoa, Euskadiko Naturaren Ezagutza Sarea, parke naturalen patronatuak– gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatu behar dela.

Ildo horretan, kargu politiko bati edo lanpostu bati lotutako pertsonak direnez kasu askotan, zaila da arau honek, edo beste edozeinek, eragina izatea amaierako eraketan, eta kide anitzeko organoak behar bezalako ordezkariak orekatua izatea.

- Estrategia batzuk garatzea, kontuan hartuz emakumeek eta gizonen aukera eta gaitasun desberdinak izan ditzaketela ingurumenaren gaineko erabakiak hartzen diren eremuetan parte hartzeko.
- Argi eta garbi adieraztea parte-hartzeari buruzko datuak sexuaren arabera bereizi behar direla, baita egindako proposamenen tipologiaren arabera ere.

- Genero-ikuspegia sartzea garapen sozioekonomikoaren programei dagokienez.

Azkenik, gaztelaniazko testua berrikusi da, soilik maskulinoan adierazitako terminoak egokitzeko.

3.- KONTRATAZIORAKO A HOLKU-BATZORDEAREN TXOSTENA.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatua xedatutakoari jarraiki.

Aurreproiektua lantzeko nahitaezko izapide gisa, 2018ko urriaren 10ean Kontrataziorako Aholku Batzordearen txostena jaso zen.

Bertan hau adierazi da:

- Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektuak osorik indargabetzen duenez otsailaren 27ko EAeko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorra, iradokitzen da aipatutako Legearen II. tituluaren I. kapituluaren ondorioz gabe uzten duen xedapen indargabetzailea kentzea.

lido horretan, ez da kontuan hartu iradokizuna, zeren seguru jakin gabe bi legeak aurrera aterako diren, edo bat bakarrik –eta, kasu honetan, jakin gabe bietako zein–, xedapena mantentzea erabaki da, aurrerago gertatzen den egoerara, baita Legebiltzarrean ere, egokitu behar bada ere.

- 88. artikuluari dagokionez (orain 87.a), AJTak bezala, iradokitzen da lehenespen-eskubidea kentzea tokiko erakundeei emandako zerbitzu-prestazioaren kontzesioen esleipenean, baldin eta tokiko erakunde horien lurralde-eremuak gune babestuetan badaude erabat edo partzialki.

Egiazki, txostenean adierazitako argudioen ondorioz, ezabatu egin da artikulua honetako 3. puntua. Beraz, lehia librea eta ekonomikoki eskaintzarik onenari esleitzea nagusituko da edozein zerbitzu-kontraturen lizitazioan edo zerbitzuen kontzesioan, eta ezingo da ezarri lehentasunik esleipenean.

4.- LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA

2018ko uztailaren 18an, txostena eskatu zitzaion Lehiaren Euskal Agintaritzari, eta hori 2018ko urriaren 23an jaso zen.

Bertan, honako hauek aztertu dira: txostenaren xedea, ingurumena babesteko eskubidea eta aurreproiektu hau, eta lehiaren gogoeta batzuk egin dituzte, ondorio batzuekin batera.

Ondorioei dagokienez, hor adierazten dute, aurreproiektuaren klausulak aztertuta, natura-ondarea babesteko mekanismoen artean badaudela ekonomia-jarduerak oztopa ditzaketan trabak, baina horiek interes publikoko beste helburu posible batzuen aurretik –horien artean, enpresa-askatasuna– ingurumena lehenesteko beharri erantzuten diotela.

Horregatik, iradokitzen dute legea oinarritzen den printzipioen artean ezartzea arautze ekonomiko efizientearen, premiaren, proportzionaltasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak.

Gomendioa baiesteari edo ezesteari dagokionez, printzipio horrekin ados egonda ere, uste dugu ez dela Natura Ondarea Kontserbatzeko Lege bati dagokion printzipio bat.

5.- HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAREN TXOSTENA

2018ko uztailaren 27an, txostena eskatu zitzaion Kultura eta Hizkuntza Normalizazioaren Sailari, eta hori 2018ko urriaren 19an jaso zen.

Txosten horretan, orain arte egindako prozedura aztertu da hala hizkuntzaren nola euskararen erabileraren arloa arautzen duen araudiaren ikuspuntutik.

Araudiari dagokionez, txostenak dio ezarritako izapideak bete direla prozeduran.

Euskararen erabilerari dagokionez, txostenak testu bat proposatzen du, aurreproiektuan aipatutako kide anitzeko organoak etorkizunean osatuko dituzten pertsonen behar besteko jakintzari buruzkoa, organo horien erregelamendu bidezko garapenean txerta dadin.

Ildo horretan, eskaera ontzat jo da, eta kontuan izango da etorkizunean.

6.- KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKAKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Zuzendaritza honek egindako txostenean egiaztatu du zenbait artikuluko daudela Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak EAeko kultura-ondarearen inguruan duen eskumenarekin zuzenean talka egiten dutenak, eta, beraz, indarrean dagoen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen (EAeko Kultura Ondareari buruzkoa) aurkakoak dira, baita legearen proiektu berriaren aurkakoak ere (gaur egun Legebiltzarrean izapidetzen ari da).

Ildo horretan, 3.2.a) artikulua kritikatzeko du, hau diolako: «Natura-ondarearen kontserbazioa lehenestea, lurralde-antolamendu, hirigintza-antolamendu eta antolamendu kulturalaren ginetik».

Leheneste hori kentzeko eskaera ez da kontuan hartu, uste baitugu hori funtsezkoa dela elementu bizi bat mantentzeko elementu hil bat baino lehenago. Nolanahi ere, kasu hauetan elkar-ulertzeak eta adostasunak nagusitu behar du.

Naturaguneen kultura-balioari buruzko aipamenei dagokienez, txostenak Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eskumen eskusibotzat jo du.

Ez gaude ados baieztapen honekin, zeren xedea ez da kultura-ondarea arautzea, baizik eta nabarmentzea ingurumenaren ikuspuntutik.

Txostenaren arabera, 36. artikuluko j) eta k) letrak eta 51.2. artikuluko d) letra bereziki sartzen dira bere eskumenean, eta ezabatu egin beharko lirake. Hona hemen horien edukia.

Berriz ere, uste dugu ez ditugula bere saileko eskumenak guretzat hartu, baizik eta balio erantsia edo babes bikoitza eman diegula kultura-elementu babestuei, ingurumen-ikuspuntutik gainera.

7.- EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAREN TXOSTENA

Txosten honek, ados gauden aurretiazko gogoeta batzuk egin ondoren, ekarpen hauek iradokitzen ditu:

a) 30. artikuluari dagokionez:

1. *ekarpena:*

Proposatzen dute artxibo batean biltzea eta hori egitea, inbentario orokor modura, haitzulo eta elementu karstikoak, GIS bidez georreferentziatutako lokalizazioarekin. Inbentario horretatik abiatuta, babestu beharrekotzat jotzen diren elementu guztien hautaketa egin beharko litzateke.

Ekarpena kontuan hartu da, eta aurreikusi da sistema karstikoen katalogo bat egitea, eta kontuan hartuko dira iradokitako lokalizazio-sistemak. Aipamena 13. artikuluan sartu da (Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioa)

2. *ekarpena:*

Aurreproiektu honen 30. artikularen 2. puntuan horrela idatzi da: «Oro har, baldintza naturaletan zaindu behar dira 2. ekarpenean proposatu den EAEko elementu karstikoen inbentarioan babestu beharrekotzat jo diren haitzulo, leize eta gainerako lurpeko bide guztiak».

Uste dugu puntuaren hasieran «oro har» jarrita, eskumen-gatazkaren bat sor dezaketen kasuak babesten direla.

b) 46. artikuluari dagokionez: Erauzte-jarduerak

3. *ekarpena:*

Aurrez aipatutakoa kontuan hartuta, proposatzen dute ezabatzea 1. puntuko bigarren paragrafoa, gune babestuetan erauzte-jardueren bateraezintasunari buruzkoa, eta 2. puntua, haustura hidraulikoaren teknika generikoki debekatzen duena; izan ere, Konstituzio Auzitegiaren (KA) 2018ko urtarrileko epaiak esaten du Estatuak arautzen duela hidrokarburoak erauzteko teknika bat aplikatzea, 34/1998 Legeak, urriaren 7koak, 7. eta 9.5 artikuluetan xedatzen duenez, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikularen 13., 18. eta 25. zenbakietan aurreikusten diren Estatuaren eskumenei men eginez.

KAren aipatutako epaiak, halaber, proiektuen ingurumen-ebaluazioa aipatzen du haustura hidraulikoaren teknika erabiltzeko asmoa duen proiektu baten ingurumen-bideragarritasuna epaitzeko tresna gisa. Epaiaren alderdi horrek bat egiten du erabat aurreproiektu honetako erauzte-jarduerei buruzko 46. artikularen 1. puntuaren lehenengo paragrafoan ezarritakoarekin.

Artikulua aldatu egin da; horrela, estatuarekiko eskumen-arazoa konpondu da, eta Konstituzio Auzitegiak ezarritakoa betetzen du.

8.- OGASUN- ETA EKONOMIA-SAILEKO ZERBITZU-ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak dokumentu bat aurkeztu du. Dokumentu horrek zenbait alegazio eta ekarpen ditu, batez ere, gramatika, ortografia, hizkuntza juridiko eta administrazio horrek araudia idazteko gidalerroei buruz ezarritakoari buruzkoak.

Ekarpen horiek guztiak kontuan izanda, testua aldatu egin da:

- Zioen azalpena aldatu da. Nahiz eta ez gauden ados jasotako iradokizun guztiekin.
- «Eusko Jaurlaritza» terminoa «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor» terminoarekin ordeztu da, termino hori agertzen zen puntuetan.
- Halaber, ezabatu egin da «Euskadiko administrazio orokor» terminoa.
- Araudiko artikuluen kopurua aipatzen duen paragrafoa zuzendu da.
- Hain zuzen, ez da sortuko Ingurumenaren Aholku Batzorderik, baizik eta funtzio berriak esleituko zaizkio.
- Aditz-denbora aldatu da.
- Akronimoak eta siglak kendu dira.
- Definizio-bikoiztasuna ezabatu da, 4. artikuluko gehienak kendu baitira.
- Uste dugu xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta azken xedapenei ere izenburua jartzea horiek topatzen laguntzen duela. Aholku Batzorde Juridikoak adierazi zuen hobe dela “izendapen korrelatiboa», eta hori ere egin da.

II. ERANSKINA

**ERANTZUN-TXOSTENA EUSKADIKO NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEARI
BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUARI EGINDAKO ALEGAZIOEI.**
